

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

URNIETAKO UDALA

Iragarkia

2022ko irailaren 8an, 2022/727 Alkate Dekretuz, Irisgarritasuna hobetuz Urnietako merkataritza-establezimenduak modernizatzeko dirulaguntzak arautzen dituen araudia onartzea erabaki da.

Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsua aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hori.

Urnietako Udala, 2022ko irailaren 8a.—Jorge Segurado Iriondo, alkatea.
(5700)

Urnietako merkataritza-establezimenduak modernizatzeko dirulaguntzak arautzen dituen oinarri arautzaileak, irisgarritasuna hobetuz.

1. artikulua. Xedea.

Tokiko merkataritzari laguntzea eta bultzada ematea lehentasuneko helburua da Udalarentzat, eta ekimen honen bidez saltoki txikiak sustatu nahi dira.

Ekimen honen helburua da saltokiak atseginagoak izatea eta establezimenduek bezeroen beharren egokitzapenean aurrera egitea, pertsonak ahalik eta modu autonomoenean bizi daitezen beren ingurune hurbilenean eta, horrela, ongizate hobea lor dezaten. Horretarako, diruz lagun daitekeen jarduketara hau definitzen da:

Mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna erraztuko duten arkitektura-oztopoak ezabatzeak inbertsioak, bai eta adinekoekin eta desgaitasuna dutenekin lagunkotasuna erraztuko duten neurriak ere: irekitzeko errazak diren ateak, heldulekuak, itxaroteko eserlekuak, poltsetarako eta paketeetarako euskarriak, probagailu erosoak eta irisgarriak, jendearentzat irekita dauden eremuak behar bezala argizatzea, letra argi eta handiko kartelak eta antzekoak.

2. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Dirulaguntza hauek ematea eta instantzia emailearen (Udala) eta erakunde onuradunaren (onuradunak) arteko harremana oinarri hauek arautuko dute. Oinarri hauetan aurreikusitako gabeko guztiari dagokionez, ondorengoek xedatutakoa jarraituko da:

— Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege-Dekretuak hura garatzeko onartutako Arautegia.

— Urnietako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza.

AYUNTAMIENTO DE URNIETA

Anuncio

Mediante Decreto de Alcaldía 2022/727, de 8 de septiembre de 2022, se ha acordado aprobar la normativa por la que se regulan las subvenciones para la modernización de establecimientos comerciales de Urnieta mediante la mejora de la accesibilidad.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Urnietako Udala, 2022ko irailaren 8a.—El alcalde, Jorge Segurado Iriondo.
(5700)

Bases reguladoras de las subvenciones para la modernización de los establecimientos comerciales de Urnieta a través de la mejora en accesibilidad.

Artículo 1. Objeto.

El apoyo e impulso al comercio local es objetivo prioritario para el Ayto. y a través de esta iniciativa pretende impulsar el pequeño comercio.

El objetivo de esta iniciativa es conseguir que los comercios sean más amigables y los establecimientos avancen en la adecuación de las necesidades de la clientela, para que las personas puedan vivir en su entorno más cercano de la manera más autónoma posible y así se procuren un mejor bienestar. Para ello, se define la siguiente actuación subvencionable:

Las inversiones dirigidas a la eliminación de barreras arquitectónicas que faciliten la accesibilidad de las personas con movilidad reducida, así como medidas que faciliten la amigabilidad con las personas mayores y con discapacidad: puertas fáciles de abrir, asideros, asientos para la espera, apoyos para bolsas y paquetes, probadores cómodos y accesibles, correcta iluminación de las zonas abiertas al público, carteles con letra clara y grande y similares.

Artículo 2. Normativa aplicable.

La concesión de estas subvenciones y la relación jurídica entre la instancia otorgante (el Ayuntamiento) y la entidad beneficiaria (los/as beneficiarios/as) se regirá por las presentes bases. En todo lo no previsto en las mismas se estará a lo dispuesto en:

— La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

— Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Urnieta.

– Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Hori guztia, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikulua Udalari euskararen sustapenaren arloan eta 17.25 artikulua Tokiko garapen ekonomiko eta sozialaren arloan ematen dizkion eskumenen arabera.

3. artikulua. Eskatzaileak eta euren betebeharrak.

Onuradunek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- * Norberaren konturako langilea edo autonomoa izatea.
- * Urnietako udalerrian jendearentzat irekita dagoen lokala izatea.
- * Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea eskaerak aurkeztu beharreko datan.
- * Egunean izatea Urnietako Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak.
- * Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.
- * Dirulaguntza eskatu aurretik inbertsio-gastuak egin izana (2021ean edo 2022an).
- * Finantzatu daitezkeen inbertsioak jendearen arretarako eremura mugatuko dira, eta honako hauek izan daitezke:

– Hobekuntza-lan txikiak, irisgarritasunari buruzko legea bete-zeko: sarbideak, ateko baoak edo barruko pasabideak jaistea, arrapalak jartzea, lurzoruaren akabera hobetzea irristatzeak saihesteko, eta abar.

– Publikoari zuzendutako gunearen barruko argiztapena hobetzea.

– Altzariak erostea: itzaroteko eserlekuak, heldulekuak, poltsa eta paketeentzako euskarriak.

– Barruko kartelak eta material grafikoa berritzea, letra handi eta irisgarriarekin, gaztelaniaz, euskaraz, braillez...

– Kanpoan geratzen da material suntsikorra edo kontsumigarria.

* Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeraren batean, Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

* Lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, sarrera edo bitarteko batzuk izanez gero, dirulaguntza eman duen organoari horren berri ematea. Bestelako finantzabide horien berri izan eta berehala jakinarazi beharko zaio hori dirulaguntza eman duen organoari, eta betiere jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu aurretik. Edozein kasutan, dirulaguntza eta sarrera guztiak batuta jasotako kopurua ez da inoiz izango gastuen % 100 baino gehiagokoa.

Urnietako Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunek egunean dituzten udalarekiko zerga-betebeharrak eta Urnietako Udaleko sozietate publikoekiko betebeharrak.

Onuradun izateko, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dira.

4. artikulua. Oinarriak argitaratzea eta eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzen deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaltxeko iragarki taulan eta Udalaren webgunean (www.urnieta.eus) argitaratuko da.

– Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Todo ello en virtud de la competencia que al Ayuntamiento otorgan los artículos 7 y 17.25 de la Ley de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en materia de promoción de euskera y de desarrollo local, económico y social, respectivamente.

Artículo 3. Personas solicitantes y sus obligaciones.

Las personas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

- * Ser persona física o jurídica trabajadora por cuenta propia o autónoma.
- * Disponer de local abierto al público en el término municipal de Urnieta.
- * Estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas a la fecha de presentación de las solicitudes.
- * Estar al día en las obligaciones con el Ayuntamiento de Urnieta, la Hacienda Foral y la Tesorería General de la Seguridad Social.
- * No hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, incluso las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la de Mujeres y Hombres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- * Haber realizado los gastos de inversión antes de realizar la petición de subvención (durante 2021 o 2022).
- * La inversiones que se pueden financiar se limitarán a la zona de atención al público y podrán ser:

– Pequeñas obras de mejoras en cumplimiento de la ley de accesibilidad: accesos, anchura de huecos de puerta o pasos interiores, colocación de rampas, mejoras del acabado del suelo para evitar resbalones, etc.

– Mejora de la iluminación interior de la zona destinada a público.

– Adquisición de mobiliario: asientos para la espera, asideros, apoyos para bolsas y paquetes...

– Cartelería interior y renovación de material gráfico con letra grande y accesible, castellano, euskara, braille...

– Se excluye el material fungible o consumible.

* No encontrarse incurso en ninguna de las restantes circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en relación con los requisitos para ser beneficiaria de las subvenciones.

* Comunicar al órgano concedente la existencia de otras subvenciones, ingresos o medios para la financiación de las actividades subvencionadas. Esta circunstancia deberá ser comunicada al órgano concedente con carácter inmediato a la fecha en que se tenga conocimiento de la existencia de otras fuentes de financiación y con carácter previo a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos. En todo caso, la suma de las subvenciones e ingresos no podrá superar el 100 % de los gastos.

El Ayuntamiento de Urnieta comprobará, de oficio, si las personas interesadas están al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y en el pago de sus obligaciones con las Sociedades Públicas del Ayuntamiento de Urnieta.

Para obtener la condición de beneficiario/a se deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 4. Publicación de las bases y plazo de presentación de solicitudes.

Esta convocatoria de subvenciones se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal (www.urnieta.eus).

Eskabideak aurkezteko epea oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren hurrengo egunetik 2022ko urriaren 31ra arte egongo da irekita.

Eskaerak, ahal dela, Urnietako Udalaren erregistro elektronikokoaren bidez aurkeztuko dira (www.urnieta.eus).

Eskaerak eskabide orri ofizialean egingo dira, eta Bertan bulegoan (www.urnieta.eus) eskuragarri egongo dira, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako moduetan aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide orria eta gainerako inprimakiak osorik bete behar dira.

5. artikulua. Finantzabidea.

Gastuaren kargua honako kontu sailean egingo da:

1 0400.770.433.00.01 2022: 5.000 €.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

Dirulaguntza jaso ahal izateko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Behar bezala betetako eskabidea.

– Inbertsio-gastuen faktura(k), dirulaguntzaren eskatzailearen izenean: diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko, fakturak eta merkataritza-trafikoan baliozkoak diren gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta behar bezala ordainduta egon beharko dute.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatzera bideratutako beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozeduran dokumenturik ez aurkezteko eskubideari dagokionez, Urnietako Udalak, datu-bitartekaritzako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez, prozedura ebazteko behar diren datuak kontsultatuko ditu, jarraian aipatzen diren datu-bitartekaritzako zerbitzuen bidez:

– Zerga-betebeharrak egunean dituen kontsultatzea.

– Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeak kontsultatzea.

– Egoitza fiskalaren datuak.

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ordainduta dituen kontsultatzea.

Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.d artikulua datuen tratamendu hori gaitzen du, eta interesdunak edozein unetan baliatu ahal izango du Aipatutako erregelamenduaren 21. artikulua.

Interesdunek egiaztapen horren aurka egin ahal izango dute. Kasu horretan, aipatutako alderdiak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

7. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura.

Deialdia norgehiagoka gabeko prozeduraren bidez eta banakako ebaluazioaren bidez egingo da.

Laguntza bakarra emango da establezimendu bakoitzeko.

Dirulaguntzak 3. artikuluko baldintzak betetzen dituztenei emango zaizkie eta zenbatekoa 9. artikuluan adierazten dena izango da.

Sustapenaren arduradunak izango du Dirulaguntzen instrukzioa eta jarraipena egiteko ardura.

Organo arduradunari dagokio behar diren jarduketak egitea datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko, eta datu horien arabera egin behar da ebazpen-proposamena.

El plazo de presentación de las solicitudes estará abierto desde el día siguiente al de la publicación de las bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 31 de octubre de 2022.

Las solicitudes se presentarán preferentemente a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Urnieta (www.urnieta.eus).

Las solicitudes se realizarán en la instancia oficial que se facilitará en la oficina Bertan así como a través de la web municipal (www.urnieta.eus) y podrán presentarse por cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La instancia y los demás impresos deberán cumplimentarse en su totalidad.

Artículo 5. Financiación.

La partida autorizada para efectuar el gasto es la siguiente:

1 0400.770.433.00.01 2022: 5.000 €.

Artículo 6. Documentación a presentar.

Para poder optar a la subvención se deberá presentar la siguiente documentación:

– Instancia debidamente cumplimentada.

– Factura(s) de los gastos de Inversión a nombre del solicitante de la subvención: los gastos subvencionables se justificarán mediante la aportación de facturas y demás documentos válidos en el tráfico mercantil que deberán estar debidamente abonados.

– Relación detallada de otros ingresos o subvenciones destinados a la financiación de la actividad subvencionada, con indicación de su importe y procedencia.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en relación con el derecho a no aportar documentos al procedimiento, el Ayuntamiento de Urnieta consultará, a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, los datos necesarios para la resolución del procedimiento a través de los servicios de intermediación de datos que se citan a continuación:

– Consulta de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

– Consulta de epígrafes del Impuesto de Actividades Económicas.

– Consulta de datos de domicilio fiscal.

– Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones de la Seguridad Social.

El art 6.1.d del Reglamento Europeo de Protección de Datos habilita dicho tratamiento de datos, pudiendo el interesado ejercer, en cualquier momento, su derecho de oposición recogido en el art. 21 del citado Reglamento.

Las personas interesadas podrán oponerse a esta verificación. En tal caso, deberán aportar la documentación pertinente que acredite los extremos citados.

Artículo 7. Procedimiento de concesión de la subvención.

La convocatoria se realiza por procedimiento de concurrencia no competitiva y evaluación individualizada.

Se concederá una única ayuda por establecimiento.

Las subvenciones se concederán a quienes cumplan los requisitos del artículo 3 y su cuantía será la indicada en el artículo 9.

El órgano responsable para la instrucción y seguimiento de las subvenciones estará formado por la Responsable de Sustapena.

Al órgano responsable le corresponde realizar las actuaciones necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

Espedientea bideratu eta ebaluatu ondoren, Dirulaguntzen instrukzioaz eta jarraipenaz arduratzen den organoak ebazpen-proposamena egingo du.

Alkate-Lehendakariari dagokio ebazpena ematea, eta hark erabakiko du zapidetzeko onartu diren eskaerak onartu, artxibatu edo ukatu diren.

Nolanahi ere, dirulaguntza emateko ebazpena emateko kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hila-beteko da, dagokion eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpenik ez badago, ezetsizat joko da.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtso a aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bi hilabeteko epean. Nolanahi ere, nahi izanez gero, adierazitako administrazioarekiko auzi-erre kurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean.

8. artikulua. Jakinarazpena.

Ebazpena udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da eta dirulaguntza eskatu duten pertsona guztiei ere berri emango zaie.

Aurreko argitalpenak jakinarazpenaren eraginak izango ditu (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen den urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.2.1) artikulua).

9. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

Dirulaguntzaren xede diren jarduketengatik, 500,00 eurora arteko zenbatekoa emango zaio onuradunari. 150 euroko gutxieneko inbertsio-gastua lagunduko da diruz. Gutxieneko horretara iristen ez diren eskaerak ez dira diruz lagunduko.

Dirulaguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako gehienezko muga horretara iristeko biderik uzten, dirulaguntza bakoitza proportzioan murriztuko da.

Behin-betiko erabakia onartu eta jakinarazten denean, dirulaguntza ordainketa bakarrean likidatuko da.

10. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak osagarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin.

Onuradunek, eskabidea egiten dutenean, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela justifikatu beharko dute.

11. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, erakunde eskatzaileak ados dago deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta baldintza guztiak osorik onartzen dituela adieraztearekin.

Era berean, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak haren baimenarekin biltzen direla, eta onartzen duela datu horiek tratamendu automatizatuaren xede izatea, eta berriaz baimentzen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzea, eta beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeek laga edo jakinarazi ahal izango zaizkiela, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan eta, lege horretan aurreikusita ez dagoen guztian, Datu Pertsonalak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean, 6.1.e artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Una vez el expediente haya sido instruido y evaluado, el órgano responsable para la instrucción y seguimiento de las subvenciones formulará la pertinente propuesta de resolución.

La resolución corresponderá al Alcalde-Presidente, que se pronunciará sobre la concesión, archivo o denegación de las solicitudes que se hubieran admitido a trámite.

En todo caso, la resolución de concesión está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para ello.

El plazo máximo para resolver y notificar dicha resolución es de dos meses desde la recepción de la correspondiente solicitud. La ausencia de resolución se entenderá desestimatoria.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa, contra la cual podrá interponerse un recurso contencioso-administrativo durante el plazo de dos meses ante la jurisdicción contencioso-administrativa. No obstante, previa a la presentación del citado recurso contencioso-administrativo, podrá interponerse en el plazo de un mes un recurso de reposición ante el órgano que dictó la resolución.

Artículo 8. Notificación.

Las resoluciones adoptadas se publicarán en el tablón de anuncios municipal y en la web del ayuntamiento además de serles comunicadas a las personas solicitantes.

La anterior publicación surtirá los efectos de la notificación (artículo 45.2.a) de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

Artículo 9. Importe y modo de abono de la subvención.

Por las actuaciones objeto de subvención se concederá a la persona beneficiaria una cantidad de hasta 500,00 euros. Se subvencionará un gasto mínimo de inversión de 150 euros. No se subvencionarán solicitudes que no alcancen dicho mínimo.

Asimismo, en el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dicho límite, la cuantía de la subvención se reducirá proporcionalmente en cada caso.

Una vez aprobada y notificada la resolución definitiva, el abono de la subvención se efectuará en un único pago.

Artículo 10. Compatibilidad de las subvenciones.

Las subvenciones establecidas en estas bases tendrán carácter complementario con las ayudas otorgadas por otras entidades.

Los y las beneficiarios/as deberán justificar la obtención de otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas cuando realicen la solicitud.

Artículo 11. Protección de datos de carácter personal.

Con la presentación de la solicitud de subvención, la entidad solicitante da su conformidad y declara expresamente que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente todos los términos de la misma.

Así mismo, manifiesta que los datos personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado y que autoriza expresamente a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas y sus Organismos en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y, en lo no previsto en ésta, el Reglamento General de Protección de Datos personales, UE 2016/679, de 27 de abril de 2016, de acuerdo con lo recogido en el artículo 6.1.e.